

Poeta egileak dionez, bere aitorenpenetan: «poema luze hau ez da ona agian», baina gauza berriak esaten ditu, Bordelek Donostiako gaztelutik eta Etxahunek galeretatik esan ez bezalakoak eta beste batzu geroago adierazi ez dituztenak. Ez dakit aski den, baina ez da gutti.

*inorekin mintzatzea debekaturik dago
ene buruarekin mintzatuko naiz soilik
baina isiltzeko agindu didate.*

*kantatzea ere debekaturik dago
baina ez dakite
poemak izkiriatzan ditugunik.*

Baina, zelda hotzetik ezin ezer berorik atera, alperrik naturaren indarrak deitu:

*izarrak suzkoak omen dira
baina ez naute berotuko*

Minezko kantak bihotzaren zartadarako.

Otsalar

JULIEN VINSON. — *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. (Volúmenes I y II). Con unas palabras sobre la presente edición de Luis Michelena. Edición: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» de la Excelentísima Diputación Foral de Guipúzcoa. San Sebastián, 1984.

Mitxelenak sarrerako hitzetan dionez, 1891. urtean Parisen argitaratu zen Vinson-en bibliografia honek ez du oraingo hau lehen birargitaratzea. Holanda-ko Oosterhout-en 1970ean Anthropological Publications-ek birargitaratu zuen lehen aldiz

eta igazko urtean Bizkaiko Aurrezki Kutxak berrido. Baina, oraino honek badu zerbait berezi aurretiko birargitalpenok ez dutenik: Julio Urkixok egindako ohar eta gehigarriak ditu, orrialdeen barrenaldian zenbakirik zenbaki jarriak. Eta horrek egiten du lehengo argitalpenak dituztenentzat erer, euskal bibliografiaz iharduteko, eskuetan hain beharrezko liburua izatea.

Euskarazko argitalpenen berri jakiteko liburu baliagarria. Inork inoiz ukatu ez duen gauza da hau eta hortaz ez dut hitzik idatziko. Vinson-ek bere garaian Euskal Herriko euskalarien aldetik begiramen onik izan ez bazuen ere, linguistikaz egin zituen ikerketez gainera gure literaturaren historia burutzeko oinarriak jarri zituen obra honen bidez, eta oraindik ere bertara jo beharra dugu xehetasunen bila. Bestalde, liburu ondo enkuadernatua merke jartzeaz aparte, eskertzekoa da horri gaineratzen badizkiogu Urkixok egin zizkion gehigarriok argitaratzea. orainarte Gipuzkoako Diputazioko agiritegian zegoen ilunpean eta liburu itxiak ez du fruiturik ematen. Horregatik, esan beharrik ere ez dago Urkixo Mintegiak zein lan ona eskaintzen digun hau argitaratzeaz.

J. S. M.

JOSE MARIA ETXEBARRIA. — *Euskal dialektologiarako tes-
to eta ariketak*. 21 × 15 zm., 297 orr. eta mapen orri bat.
El Carmen Argitaldaria. Gasteiz, 1983.

Liburu honekin euskal dialektologiaren azterketan beste aurrerakada bat ematen da. Baina, liburu honekin, aurrerakada bat baino hobea dena, zera da, linguistika arloko eskolaren adar berezi bat sortzeko urrats garrantzitsua eskaintzen digula esango nuke.

L. L. Bonaparte printzea izan zen gure euskalkiak mugatu zituena, joan zen mendearen erdian, garai haietan dialektologiarako ezagutzen ziren metodoekin. Geroztik ere, lan mono-